


GIZARTE ONARPENERAKO KANPAINA

Uribe Kostako Mankomunitateak
ikusgai egin nahi ditu
ZAINZAILERAKO EZ-PROFESIONALAK
menpekotasuna duten senideen



ZAINZAILEREN ONARPEN SOZIALERAKO KANPAINA - URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA

Uribe Kostako Mankomunitateko Gizarte Ekintza Sailak martxan jarri du kanpaina bat, menpekotasuna duten senideen zaintzaile ez-profesionalak gizartean ikusgai egiteko. Kanpainaren helburua da menpekotasuna duen inguruko adineko pertsona bat egunero eta etengabe zaintzen duten pertsona guztiei *onarpen soziala* egitea.

Egunero denbora luzez eta dedikazio handiz egiten den zaintza-lanaren *Aitortza*; eta menpekotasuna duten pertsonen zaintzaren gaineko eta etengabeko zaintza horrek eragiten dituen ondorio fisiko, psikiko eta sozialen gaineko *Sentsibilizazioa*.

Ekimen hau Zainduz Programaren baitan kokatzen da, menpekotasuna duten pertsonen senide zaintzaileei babesa emateko programaren baitan alegia, eta zaintza-lana egiten jarraitzeko beharrezko bide eta tresnak emanez laguntzeko hartutako konpromisoa du sorburu.

Nor Uribe Kostako Mankomunitateko herritarrak baino hoberik zaintzaile horiek ikusgai egiten laguntzeko! Horretarako *zure laguntza* eskatzen dugu, zaintza lanetan diharduten pertsonak identifikatzen lagun diezaguzun.

Helburu hori lortze aldera, garrantzitsua da zaintzailearen bat ezagutzen baduzu, eta egiten duen lanagatik omendu behar dela uste baduzu, hautagai gisa proposatzea. Hautagaitzak 2017ko maiatzaren 2a eta irailaren 4a bitartean proposatu daitezke.

Bi bide dituzu horretarako:

1. Utzi proposamen-inprimakia Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizeko Udaletxeetan, Kultur etxeetan, Jubilatuen etxeetan eta Kiroldegietan dauden

kutxetan, edo Mankomunitateko Egoitzan aurkeztu (Gatzarriñe 4, Larrabasterra - Sopela).

2. Bidali proposamena posta elektronikoz gizarte@uribekosta.org helbidera.

Informazio hau eskura izango duzue inprimakia aurkezteko puntuetan, baita zahar-etxeetan, osasun zentroetan eta kultur etxeetan ere.

Kanpainaren bidez identifikatutako pertsoneri omenaldia egingo zaie azaroaren 10ean, Urdulizko Kultur Etxean.

“LAGUNDU IEZAGUZU IDENTIFIKATZEN”

